

## *Jose Mari Aranbarri Elduaien*

*Azkoitia,  
Gipuzkoa  
(1931-2020)*

Aurkibidea

**Biografia**



1931n jaio zen Urrategi auzoko Zukiazu ("Sukusu") baserrian. Madariaga auzoan ibili zen eskolan lehenbizi, eta Azkoitiko Floreagako salesiarretan gero. Elgoibarko "Anaiak" lantegian lan egin zuen hasieran, eta gerora "Gurelanan" txapa ebakitzen. 20 urterekin soldadutzara joan zen eta Altzoainen eta Huescan egon zen "ingeniero zarpador" karguan. Azkenengo 5 lan-urteak Zaldibarren egin zituen txofertzan.

## Zintak

### AZK-012

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-03-14
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

### AZK-013

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-03-14
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

## Pasarteak

### 1. 1930ean Sukusu baserrian jaioa

- **Erref:** AZK-012/001
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

Bere burua aurkezten du. Zukiazu ("Sukusu") baserrian jaio zen eta betidanik bertan bizi izan da.

#### Transkripzioa

-Ni jaixo nintzen nobienbrian hogeta hamarrekue naiz ni; bai, nobienbrian hogeta hamarrekue.

-Ze urtetan?

-Treintaiunuen.

-Hemen jaio zifien?

-Bai, bai. Lehen ez zan zeriken, lehen baserrixen bertan, lehen hauek zien lehengo ospitalak eta klinikak.

-Beti hemen bizi izan zera?

-Bai, ni beti hementxe bizi izen naiz.

### 2. Eskolan Madariagan, Olaberri baserrian eta Floreagan

- **Erref:** AZK-012/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

Eskolan Madariagan, Olaberrin, Floreagan eta gau-eskolan ibili zen. Dotrina, matematika eta erdara ikastea ziren eginkizun nagusiak. Ezagun baten inguruko kontuak. Eskolara ordubete inguruko bidea izaten zuten eta autobusa hartzen zuten. Irakasleak Salesianoak ziren.

### Transkripzioa

-Eta gaztetan eskolara eta?

-Eskolara, Jesus! Madarixan ibili nintzen ni, Olarren (Olaberrin) ere bai, Florian (Floreagan) ere ibili nintzen, eta gabeko eskolan Pedritokin Azkoitixen ere bai; danien.

-Zer ikasten zenduen orduan?

-Ordun erderie ikestia zan printzipala, eta bera ez gendun asko ikisi eta eskolia ere antzera.

-Zer ematen zenuten, dena erderaz?

-Bai, be(ha)rko ein, euskeraz ez zebe ametitzen len. Izena ere euskalduna bazenduen kanbixau eitten zizuen.

-Lehen, bueno, Francon sasoe hartan, zer ez. Gu ordun Floridan eta, ordun kontu-ataratzen eta zera, nola esaten zako horri? Matematikasen.

-Eta Dotriña ematen zenuten?

-Bueno! Drotiñak eta?, ene! Bestenik eta esan ahal leike nik eze?

-Esan esan!

-Hamen Olanxoa Joakin edo, gizon zera zan, oso argixe eta; komunixo txikixe eitteko drotiñe txikixe ikesi ber izeten zan eta. Zuk hori igul ezautuko zendun. Eta ikisi du te. Gero haundixa eitten zan berriz, bigarrena ere bai hamaika urtekin, ordun haundixe. Eta, je!, "gure alabak atzo mekauben dios! esan dik". "Ze ba?" eta. "Lehen dotriña txikixe ikesi eta oin haundixe ikesi ber dala berriz". Arrazoia ere bazaukan.

-Derriorra zen?

-Bai, derriorra, derriorra.

-Eta eskolara zer juten ziñeten, neska eta mutil danak batera?

-Bai, mixto zan. Floridan egon zien Salesianuek, oin salesianuek daure, baiñe gure denporan salesianuek egon zien lehen ere. Han egoten giñen eskolan. Goizian oiñez jun eta oiñez etorri. Eta guri amak etzigun esaten sekule goizo etortzekoik. Esaten zigun horrebeste astokada belar ekarri ber dezue illuntzien, zeuk pentsau noiz etorri.

-Bide luzea hemendik eskolara?

-Ba... Gu azkar juten giñen eta baiña ordubete behar hala ere. Hor behera "echando leches". Eta etorri berdin. Hemen ibilli zan autobus bet Elgoibarrera Azkoititik, Azpeititik erteten zun baiña autobus bet. Eta hari atzeko eskillaran katiante eta, uda aldien eta guk eiten giñutzenak. Ene! Jata gaiñera ixo ere bai atzetik eta. Eta Anton Balda edo kobradorie badakit nola ibili zan eta. Jata alboko leixotik erten harek eta gu [...] bialtzen eta ibiltzen zan.

### 3. Baserriko lanak eta ganadua

- **Erref:** AZK-012/003
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena:**

Baserrian belarretan eta ittulan aritzen ziren, besteak beste, eta eskolara joan gabeko egunak izaten ziren. 20tik gora behi izaten zituzten etxean.

**Transkripzioa**

-Eta eskolatik etxera etorritakoan?

-Belarra ebai eta ganajatekuk ekarri behar astuakin. Bai, hola izeten zan gure kontua. Eta egualdi ona bazan, ezta pentsau´re eskolaa juteik, ittulan ein ber. Txarra bazan eskolaa.

-Ze lan egiten zenuten etxean?

-Ene!, ittulie ta, jesus!, zenbat lan! Gari-ereittie ta, artue eta arbixe ta, [...], eta garotie ta, ze ez len! Bueno, bueno!, bai.

-Eta ganaurik bai etxean?

-Bai. Beti hogetaka ganau egoten zien. Bai.

**4. 15 anai-arrebako familia**

- **Erref:** AZK-012/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>15 anai-arreba ziren. Anai-arreben inguruko kontuak.</p>

**Transkripzioa**

-Eta anai-arreba danen artean lanean?

-Bai. Hamen ixex... baten bat akaso zerbitzera tabernan batera akaso jungo zan baiña azken samarrera arte gehixenak etxien.

-Zenbat anai-arreba ziñeten?

-Hamalau. Hamabost giñen, nik hamabost ezautu nittuen. Hori Madarixako Jerolimo ezautuko dezu nere anaixe. Tabernako haure ez dezu ezautzen? Ba haure bikixetakue da. Haretxen arreba, hiru hillabetekin hil zan haure, buruko atakiakin edo.

[...]

**5. Erromeriak Gurutzeta eta Madariagan**

- **Erref:** AZK-012/005
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

**Laburpena:**

Erromeriara Gurutzetara eta Madariagara joaten ziren; azkenengo honetan dantza lotua debekatua zegoen. Orduko erromerietako kontuak.

## Transkripzioa

-Erromerietara eta juten zi&ntilde;eten gaztetan? -Jungo ez gi&ntilde;en ba. Bueno! Bai&ntilde;a gure erromeixe motxa zan, esan dizut ba, beti jatekotan geratute, beti hurrengo jairako pozakin egoten gi&ntilde;en gero. -Nora juten zi&ntilde;eten ba? -Kutzeta (Gurutzeta) badakizu nun dagon hor? -Bai. -Horra&acute;re bai. Madarixara&acute;re bai, bai&ntilde;e Madarixan dantza lotue debekaute zauen, eta Kutzetan libre, eta hara. Igul samar zan guretzat, guk ez gendun dantzan pekatuik itten, ezta zanik ere gai&ntilde;era. Eta berko ein! Gure amak, gurien bi arreba zaharraguk nik eta, esaten zixuen: "Honek erromeien dantzan eitten al din?", eta: "Ez du ba in". "Hi, erromerire junde dantzan ez dekala eitten hurrengo jaixen aitzen baet, hurruneke jaixen ez dek ertengo. Han junde begira bestei egotea? Hortara ez dao zetara junik". Akordatzen naiz San Ixidrotan jun Madarixara eta, frontoia badakizu Madarixan, egonda egongo zera zu, jun gi&ntilde;en, eta hautse bai, eta haure dana beteta dantzan jentie. Ene, hamen ez zeok dantzaik eitteik. Datorren jaien etxien egon biharrien nauk, pentsau nun. Orduntxe ein. Hasi nintzen hasi banintzen. Kitto, harrezkero jaiero alkondarie bustitte dantzan. -Nola izaten zan? Faborez edo nola eskatzen zenduen? -Eingo deu edo zeoze. Perrie iguel edo, nola esaten zion horri, kalabazie edo. Neska-laguntzea junda&rsquo;re bai perrie edo kalabazie. Ordun modan zan bai&ntilde;a, lehen ez zan oin bezela, e. Oin nobixo-nobixak dauzkenak hasi eta hiru egunerako ia ezta soltau&acute;re ez die itten. Bai&ntilde;a lehen ez, lehen nobixuak eta nobixak zeuzkenak&acute;e etxera jun arte hantxe eitten zebeñ danak dantzan. Etxera abantatzen zienien jun laguntzera. Bai&ntilde;a oin ez da hola. Oin parejaute berak, eta nik ez dakit ba, bestiek harrapako ote dixuen bildurre edo, nik ez dakit ze eukitzen deben oingo hoixek, lehen ez zan holakoik. -... -Keba! Nik lehen, zu soi&ntilde;uan eta ibiltzea zea, nik ikuste(n) (d)et, baltsio txikixa zer da? Ez dakizu zuk. -Agarrauai esango zai? -Bueno bai&ntilde;e nola eitten da hori? Edarrena hori zan Kutzetan. Ba bueltako denboran, trikitixe, bueltako denporan heldute eitten zan. Eta hori oin ez det ikusten nik. Jo iguel ingo dezue ba? -Bai, berdin-berdin. -Eta oin ez da itten hori. -Ordun gehio kostauko zen heltze hori ta. -Ez zan horregatiken. Halaxe usatzen zan ordun, guk ez gendun gauza berri(r)ik ezer&acute;e ipi&ntilde;i. Guk ez gendun ezer&acute;e ipi&ntilde;i gauza berri(r)ik. Eta bueno. Bai&ntilde;a guk [...?] gi&ntilde;en, ezer ez. -Erromeria bukatutakoan neska-laguntzera. -Bai, epokaik bazendun neska-laguntzera eta bestela berriz trago txikin bat in eta etxera. Eta etxera hamarretako etorri ber, hori ez zan asko hobia. -Eta erromeria ze ordutan bukatzen zan? -Ba, illun istantzien. Eta hurrengo jaixen ez jun amai preguntatzera. "E?, hi atzo hamarretarako ez hintzen etorri eta ez daukat kontestatixo... heuk daukak heure buruantzat. Jaki&ntilde;in hengoan". Eta "ya est&acute;". Eta mezetara jaixen juten ez bazi&ntilde;en ez zauen zera eitteik, erromerira juateik jaixan. Akordatzen zat neri baten, kriston burukomi&ntilde;a gozian eta: "Oin mezetara juteko ez zeukat ba nik holako zer haundirik bai&ntilde;a. Eta atsalderako burukomi&ntilde;a pasatzen bazat? Gero erromerira juteke egon ber. Igul dek ba, ez nauk gauza". Atsalderako ez zin burukomi&ntilde;ak aldein eta ondo. Bai&ntilde;a aldau banintz etxiin egon ber. Mezetara jun ezik etxiin egon ber. Zenbat holako! Len!?

## 6. Neskak tabernara sartzea bekatu

- Erref: AZK-012/006

- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Tabernetan mutilak bakarrik sartzen ziren, neskek debekatua zuten. Ardo txikitoa edan ohi zuten tabernan.

**Transkripzioa**

-Tabernara juten zinatela esan dezu. Neskak juten ziren?

-Ez, ez, neskaik eta etzan juten tabernara len. Len pezta baten ardua edo bi edo len hola egoten zan. Oiñ txikitua edo baso erdixa. Len etzan, basokarie bete-bete etarutzen zebe len. Eta mahixetan'e bai lenao basua puntaraiño bete bihar zan e! Basuak puntaraiño beteta. Oiñ ez, oiñ ia trago baten erateko laiñ betetzen (d)a, pixkat, alde hobia da hori. Hor adelantau ein da.

## 7. Elgoibarko azokara saltzera

- **Erref:** AZK-012/007
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

Ama eta arrebak Elgoibarko azokara joaten ziren etxeko produktuak saltzera.

**Transkripzioa**

-Baserrian esan dezu ganaua eta eukitzen zenutela, eta azokara saltzera eta?

-Elgoibarrera eta Azpeiture ta azokara hemendik juten zan. Ama zaonien ama eta ama hil zanien arreba zarrenak eta juten zin Elgoibarrera.

-Zer eramaten zenuten saltzeko?

-Ba, arrautzak eta, gaztaiek eta, holakuek. Porrue bazan porrue eta, zortzixan behiñ hori. Eta hola ibiltzen giñen.

## 8. Fresadore, txapa ebakitzen eta txofer lanetan

- **Erref:** AZK-012/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

**Laburpena:**

Etzetik goragoan zuten txabolari eta baserriari ijito batzuek su eman zien eta orduantxe hasi zen Joxe Mari lanean. Elgoibarko "Anaiak" lantegian fresadoran bi urtez eta "Gurelan"en txapa ebakitzen aritu zen. Bazkaria ordaintzeko adina ateratzen zuen. Ondoren koinatu batekin Zaldibarren elektrizitate lantegi batean txofer ibili zen 5 urtez eta hantxe jubilatzen.

**Transkripzioa**

-Eta gero lanean hasi ziñen, taillerren baten edo?

-Bueno, ni lanien hasi nintzen, bai, etxie erre zanin bai, Elgoibarren ibilli nintzen, Anayanien ibili nintzen.

-Etxea erre egin zitzaizuen?

-Etxia erre ein zan hamen, lengo etxia. Ointxe san Bartolome bezpera gabian erre zan gure etxia.

-Ze pasa zan ba?

-Ez dakit ba. Ze pasau. Hamen ijittuek hor goixen oin ere hantxe dauke txabolie, txabolie zan, eta garoz beteta zauen, eta ijittuak etorri zien hara, eta erre ein ziguen txabolie gabin, garuek su hartute, nahitta ez zan izengo baiña erre behintzet. Guk falta. Eta gero hamen badao beste txabola bat, bazan haure ere, hor [...] aldetik harutz, ijittuak hara alde ein zebe goizian jaikitzen. Bai ba, txabolia erre [...] harek ospa. Eta gero hara aitte ta hamen auzoko beste mutil batzukin, gu gaztiek giñen artin. Eta jun zan eta txabolia erre zebela eta hola eta horrenbeste diru pagau ber zebela. Eta baietz, pagauko zebela, pagauko zebela. Bale. Mando haundi bet zauken harek, eta aittek mando haure ekarri zun, diruakin zatozenin emango zebela atzera eta. Eta geuk juzgue dauku gero haretzek izen ete zien etxiai su eman zixuenak. Bengaizue, holakon bat.

-Eta orduan ibili zinen lanean taillerrean, erre zenean etxea?

-Bai.

-Zertan lan egiten zendun?

-Ba nik fresa baten itten nun, fresadore haundi baten. Harrapau niñun harek´e, makiniak harrapau ein niñun. Eta ezer ez zin in, txarra izen.

-Ze taillerretan ibili ziñen.

-Anaianin, egin nittun bi urte eta. Gureolan´e bai, han txapia ebaitzen eitten nun gillotina baten. Han ibili nintzen.

-Eta? Jornal ona irabazten zendun?

-Bai, jornal ona, bazkaixa pagatzen bagendun konforme. Jornal ona. Gero ibilli nintzen koiñaduakin´e bai Zaldibarren, elektrizistako taillarrin han txofer ibilli nintzen, taillarreko txofer. Han ein nittuen bost urte. Hantxe jubilau nintzen.

**9. Auzolanean egiten ziren lanak**

- **Erref:** AZK-012/009
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Basoan auzokoekin apeak egiten eta auzolanean aritzen ziren. Idiekin egurretan, gari ebakitzen, garotan, etab. Kaletar eta baserriarren arteko bereizketarik ez zuten jasan.

### Transkripzioa

-Taillerrean eta etxean bitan arituko ziñen batera.

-Batera ez, baiñe egune zortzi ordukuen partez hamabi-hamalau orduke eittia egune. Eta basuen´e bai, e, hamen auzukuekin eta apeagiñen eta ere. Bueno! Hamen inguruko lanak danak itten giñutzen guk eta artian ez giñen nekatzen, ordun sasoie zaon.

-Auzolanian eta ibiltzen ziñaten?

-Bai, auzolanien eta, bueno.

-Zer egiten zenuten?

-Idixekin junda igual trongotan eta, danera. Gari ebaitzen´e bai, auzolanien ebaitzen zien len garixek´e. Eta jo´re bai, dana holaxe. Garue ebai ere bai. Lehen hola ibiltzen giñen.

-Kaletarren eta baserritarren artean diferentzia haundia notatzen zenuen?

-Bueno. Be... Basarritarrak beittu eta ezaun izaten du nunguek gean, hor ez dakizu, ze trajie...

-Diferentzie eitten zizuen edo?

-Ez.

-Kaletarrei hobeto baserritarrei baiño?

-Ez. Geu´re ez giñen azian lelengo azpiko ostrue, e! Geu´re ez giñen.

## 10. Luistarren kongregazioan hilean behin konfesatzera

- **Erref:** AZK-012/010
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

### Laburpena:

Mezetara eta konfesatzera joan behar izaten zuten. Luistarrak zeritzen kongregazioan sartuta zeuden. Hillero konfesatu behar izaten zuten, baina Joxe Marik sekula ez zuen dantza lotuan egiten zuenik konfesatzen.

### Transkripzioa

-Elizara eta?

-Elizara jun ein ber ba! Esan dizut ba, elizara eta, kongregaziuak lehen. Luistarrak izeten zien, hillero-hillero jun ber konfesau eta jaunartzera. Eta gero dantza lotue ein gendula jakitten bazeben handik´e bota eitten zeben. Baiña sekule ez det dantza lotue ein dedanik konfesau behintzet.

-Konfesau jaiero egin behar izaten zenduen?

-Hillero. Eta sekula ez et nik konfesau dantza lotue ein dedanik abadiai.

Sekule. Eta kezkaik ez daukat harenik. Pekatue guk? Gure pekatue bat izen da: ein eziñe pekatue.

## 11. Dantza lotua debeku

- **Erref:** AZK-012/011
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

**Laburpena:**

<p>Irukurutzetako erromeriako kontuak. Dantza lotua egiten zutenei jarritako kantua aipatzen du. Dantza lotuan eginez gero bi duroko multa izaten zuten.</p>

**Transkripzioa**

-Ostien hamen lengo kantu bat bada, zuk hori kantatzen'e jakingozu baiña. Hamen Irukurutzetan erreimeixe, maietzan [bigarren jaixe?] edo eitten zan erreimeixe Iruku(ru)tzetan urtero, eta Azkoittiko mutillek, Azkoitixen kongregazixue ta, jun die eta ein debe dantza lotue eta enterau die, eta kantu bat da:

Irukurutzeta eguna  
Señaladamente,  
Azkoittiko mutiko-mutillei  
Duro biña multe  
Dantza ein dutelako  
Neskiai heldute.

-Zu kantu hori aittute egon zera?  
-Ez neuken aittuta. Kastigue?  
-Kastigue, duro biña multe. Hori gu baiña..., ba gu gaztiek giñanin pasautakue hori.

**12. Jaunartzea Madariagan, marinel jantzita**

- **Erref:** AZK-012/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena:**

<p>Etxean arrosarioa errezatzeko ohitura handia zuten. Jaunartzea Madariagan egin zuen, marinel trajez jantzita.</p>

**Transkripzioa**

-Eta etxian errosarioa errezatu behar?  
-O, berko erresaixue, egunero. Eta [krezaxotako?] denporan belauniko. Eta orduan akordauko zitzun munduan dien zerik txarrenak.  
-Lanean ari ziñetela igual, arto-zuritzen eta.  
-Bai, arto-zuritzen ari giñela ere. Eta gure ama, haura ez badao zeruan, nik makiña bat aldiz esan det, gu alper-alperrik ari gaittuk. Haura beti errezatzen egoten zan. Hamabost misterixoko erresaixuak igual eta. Guk txistie do neska-kontue edo hortakua aittu nahi eta, bai, letxiek, harekin ez zeuan holakoik.  
-Komuniua nun egin zendun?  
-Madarixan komunixue, Madarixan. Madarixan ein gendun komunixue guk.  
-Eta nola izeten zan? Oin bezela?

-Be... elizako kontuek oingo antzera. Oin aïñe lujo ez, baiña len izeten zan traje marino edo, oin itxesuen ibiltzen dien hoixen tipora, hamendik hola kordoe bat jantzitta eta holakuakin te [eta]. Zaharrenak eitten bazun, ona geratzen bazan hurrenguantzat ondo iguel eta. Batekin iguel lau-bostek urtien illeran. Gu illerakuek gea danok eta, haretxeekin. Eta gero ordun ze, komunixue inde etxera bakoitzen zera. Oin bezelako zera hoixek? Ene, ene! Oin ez dao lengo kontuik. Baiñe oin lujue gehixegi dagola.  
-Orduko aldean bai.

### 13. Soldadutza Altzoain, Huesca eta Biescasen

- **Erref:** AZK-012/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

#### Laburpena:

<p>Soldadutzara 20 urte zituela joan zen Altzoainera (Nafarroara) eta handik Huescara. "Ingeniero zarpador" postuan aritu zen alanbre-hesiak jartzen, besteak beste. Lau hilabete etxean egin permisoarekin eta gero kantinero modura Biescasen.</p>

#### Transkripzioa

-Eta nun egin zendun soldauska?  
-Bueno, instruzixuek ikasi giñuzen Antsoainen. Antsoain badakizu, Planpona baino lehentxuaio dao hori. Eta banderia jurau gendun eta bakoitzek destinue euki gendun eta gu jun giñen Huescara, Piriniosetara, Candanchú. Hor ibilli giñen gu. Ondo ibilli giñen. Soldautzie?  
-Ze puesto tokau zitzaizun?  
-Gu zerakin ibilli giñen, "Ingiñiero Zarpador" edo, hoixetakuk. Kantuek ere banittun nik hoixenak.  
-Zer izeten zan hori?  
-Ba, alanbradak ipintzen eta, holako zerak eta. Pistak in ber bazin harek´e baitte. Baiña nik lau hillabete etxien ein nittun permisuakin. Eta soldautza ona pasau nun nik. Gero azkenengo denporie gaiñera kantinero egon nintzen. Ordun Biescas-en egon nintzen kantinero.

### 14. Soldadutzako pasadizoak

- **Erref:** AZK-012/017
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

#### Laburpena:

<p>Soldadutzako txerria hil zuteneko pasadizo bat kontaktzen du. 13 hilabete egin zituen eta tartean gezurrak esan behar izaten zituztenez pasadizo bat kontaktzen du.</p>

## Transkripzioa

-Txarri bet, txarrikume txiki bet ekarri zien eta hauraxe gizontzeko karguen eman zien eta hasi nun galanta txarrix. Eta hil gendun haure ere hantxe. Zu, honek esaten du: zu, zuk ez dezu ezautuko Elias, Eibarren bizi da, Elias Aranbarri Bolasenekua edo.

-Ez.

-Zu ez zera Azkoittiarra zu?

-Beasaindarra.

-Eta haure zauen kapitanan asistente, eta txarri hori ein zan berrehun kilo bai. Eta kapitanak esan zun, danok formaute, ia iñork txarrixa hiltzen zakixen, eta iñork´e ez zeraiken eta. Eliasek esan zin: Hi, Joxe Mari, hik txarrixak hil dittuk ba lehen´e makiña bat aldiz. Eta bai. Eta guk hilko ginikek ba hori. Bai, hilko ez ginikek ba? Eta hala esan nixon kapitanai, "primo" esaten giñon alkarrri harek eta nik. Bixok Aranbarri giñen, eta han galdiek eitten dittue harrapatzeko, e! Aber ze nola giñen primuek eta. Aittak giñutzela anaixak. Aitta edo ama esan ezkerro jodiduta genden, apeillidua kanbixatzen zan. Eta aittak giñuzela anaixak eta. "Primo" esaten ziguen handik aurrera. Eta halaxe txarri haundi hori hil gendun. Eusteko soldadu nahikue bagendukela txarrixai eta hiltzeko hamen eitten gendun bezela. Eta halaxe ein gendun, sangrau gendun eta lasto mordo bat juntau gendun eta eman genion su txarri horri eta: "Je, je, los vascos van a comer el cerdo enseguida, ya están quemando". Esaten ziguten.

-Sekula ikusi gabe igual.

-Han sekula zeriken ez. Beste tipo batera eingo zeben. Eta hala behintzet. Ondo erten zun eta ondo.

-Zenbat denbora egin zendun soldauskan?

-Ba soldautzie nik´e hamahiru hillebete eta etxien lau ein nittun; gitxi.

-Baiña rekuerdo onak.

-Bai, nik soldautzie. Ene! Zenbat gezur sartzen nixen nik ofizialei eta. Baten akordatzen naiz, bageunden meza-kanpainan Antsoainen, meza-kanpaiñan bagaure eta, hainbeste denporan firme, baiñe ni mobidu nintzenik ez nion iritxi baiña... Etortzen da sarjentue eta belarrixan onduen esan zien: "Aranbarri, por qué te has movido en la formación?" Eta han ez da esateik egoten ez zeala mobidu, e, laste hurrengo kontestazixue harena badakit nik ze izengo zan: "Y encima me dices mentiroso" esango zin. Ixilik. "Después de romper filas, veinte vueltas alrededor del patio" esan zin, eta. Hala jun zan eta neure artian pentsau nun: "Ez dakik asko zeñekin habillan. Nik hogei buelta hemen eman? Ez diat pentsatzen. Hala "rompan filas" ein zienin jun giñen barrakoira eta, barrakoiek literak eukitzen zittun bat eta bi eta hiru, eta goikun tokatzen nintzen, eta han goixen hola atzea samar jarri ezkeo ez zan behetik ikusten, eta etorri da sarjento hori ta, kuarteleroak nobedadie eman ber izeten du sarjentue etortzen danien: "Compañía, sargento!", eta danak firme jarri ber, eta. Hori nere billa etorri dek, neri ez zixek ikusiko horrek. "El que he dicho que haga veinte vueltas es de esta compañía, si sale ahora no le va a pasar nada, pero si no ya veré yo". Eta bai, egon hadi, hik ez nauk ezautzen ni oindik. Hala bota zun azkenego desafixue, ondo ezautzen niñula eta ikusiko nula, berak pentsauko zula ze in nerekin eta. Hala, handiken atie zuzen zauen bere despatxora eta ikusi nun nola jun zan. Ointxe dek nere sasoie. Ointxe jungo nauk ni horrena. Jun nintzen, bidien akordau ziten ze esan, eta atie jo nixon eta, "adelante" esan zin. "Eh, eres tú el el que he dicho yo queagas veinte vueltas". "Sí mi sargento, me han dicho en la compañía que usted ha estado preguntando por mí allí, me ha tocado limpiar la perola y cuando

he ido allí me han dicho que ha estado usted allí." "Vale, vale, no hagas ninguno". Oin txupau itzak hori, pentsau nun.

## 15. Erdarazko ateraldiak

- **Erref:** AZK-012/018
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Erdaraz moldatzeko adina bazekien eta horren inguruko ateraldi bat kontatzen du.

## 16. Soldadutzako pasadizoa

- **Erref:** AZK-012/019
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

<p>Azpeitiko lagunak tokatu zitzaizkion soldadutzan eta erdaldun bat ere bai. Haren inguruko kontuak kontatzen ditu. Egunero errezatzen zuten arrosarioa han ere.</p>

## 17. Soldadutzako pasadizoa

- **Erref:** AZK-012/020
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:30:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

<p>Lau hilabetez etxera etortzeko baimena gezurra esanda lortu zuen. Gezurra esan zioneko pasadizoa kontatzen du.</p>

## 18. Gerra denborako bizipenak

- **Erref:** AZK-013/001
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

**Laburpena:**

Gerra hasi zenean, Jose Marik bost urte zituen, eta zazpi hilabetez iraun zuen fronteak inguruetan. Bonba beren etxetik gertu jarri zutenekoa kontatzen du. Zaldunerien kontuak eta pasadizo bat kontatzen ditu. Trintxera edo atzeguardia Sukusu gainean zeukaten jarria. Ezagun batzuen izenak eta gerra denboran gertatuak kontatzen ditu.

**19. Soldaduak etxera sartu zirenekoa**

- **Erref:** AZK-013/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerraren eragina](#)

**Laburpena:**

Soldaduak etxera sartu zitzaizkien batekoa eta haiek amari esandakoak. Soldaduen inguruko iritzia ematen du.

**20. 1942, gose urtea**

- **Erref:** AZK-013/003
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Baserria](#) » [Baserriko lanak](#) » [Garia](#)
- [Baserria](#) » [Baserriko lanak](#) » [Errota](#)
- [Politika](#) » [Gerraostea eta Francoren diktadura](#) » [Ekonomia gerraostean](#)

**Laburpena:**

1942 urtea gose urtea izan zen eta errota guztiak itxi egin zituzten. Eibar aldetik irina erostera joaten zitzaien jendea, baina kontuz ibili behar izaten zuten, sarritan haietakoren bat izaten baitzen "txibatoa".

**21. Taloa, urdaia eta morokila etxeko jaki nagusi**

- **Erref:** AZK-013/004
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Elikadura](#) » [Jatekoa eta edatekoa](#)
- [Baserria](#) » [Baserriko lanak](#) » [Abere-hiltzea](#)

**Laburpena:**

Etxeko jaki nagusiak taloa, urdaia eta morokila ziren, besteak beste. Etxean urtean pare bat txerri hiltzen zituzten; aitak hil ohi zituen. Ez zuten etxean goserik pasa.

## 22. 25 urterekin Azkoitian ezkondu eta Donostiara bidaia

- **Erref:** AZK-013/005
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

<p>25 urterekin bizilagun zuen Kurutzeta baserriko alabarekin ezkondu zen Azkoitiko parrokian, San Anton egunez. Ezkontzako soinujolea eta taxista aipatzen ditu. Elurra egin omen zuen. Ezkon-bidaian Donostiara joan ziren.</p>

## 23. Ezkonbidaiko pasadizoak

- **Erref:** AZK-013/007
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

<p>Donostiako bidaiako pasadizoa eta etxerako buelta.</p>

## 24. Sei seme-alaben aita

- **Erref:** AZK-013/009
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Ezkondu ondoren Sukusura joan ziren bizitzera. 6 seme-alaba izan zituzten. Beti ganadua izan dute etxean.

## 25. "Txakur zuloka" jolasa

- **Erref:** AZK-013/011
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Garizuma egunetan ez zen soinurik izaten eta " txakur zuloka" deiturikoan jolas egin ohi zuten. Jolasaren nondik norakoa azaltzen du eta nola azkenerako hartan jolastea ere bekatutzat jarri zieten.

**26. Orduko eta gaurko heziketa eta errespetua**

- **Erref:** AZK-013/012
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:15:26. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Orduan ia dena bekatu izaten zen. Etxean ere gaur baino errespetu gehiago izaten zen eta neska gazteek haurrak izanez gero, ezkutatu edo gordeka ibiltzen ziren.

**27. Neska-laguntzearen inguruko kontuak**

- **Erref:** AZK-013/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:20:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. Etxera neska-laguntzera joateko, begiz jotako neskarengana hurbildu eta baimena eskatu ohi zieten. Orduan ez zen libertaderik gauzak nahi bezala egiteko.

**28. Olinpus Zinema**

- **Erref:** AZK-013/017
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Azkoitian Floregan eskolan ibili zenean joan zen soilik zinera, ez zuen zinerako ohiturarik, erromeriara joaten ziren. Azkoitian Olinpus deiturikoa zegoen.

**29. 17-18 urterekin gau-eskolara anaiarekin**

- **Erref:** AZK-013/018
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

<p>Gueko-eskolan ibili zen 17-18 urte zituela anaiarekin batera, ilundu arte lana egin eta gero joaten ziren. Hilabete egin zuten.</p>

**30. Etxean osaba harri-jasotzaileak zituen**

- **Erref:** AZK-013/019
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:22:49. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Osabak zituen harri-jasotzaileak eta bere semea haiei ikusita hasi zen. Apustuak bere garaian baino lehenago gehiago izaten ziren, aitik kontatzen zenez. Harri-jasotzaile batzuk izendatzen ditu; "Etxosta" eta "Usula".

**31. Esaera zaharrak**

- **Erref:** AZK-013/020
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

**Laburpena:**

Bertsotan sekula ibili ez bazen ere, esaera zahar ugari dakizki eta hiru erdarazko aipatzen ditu eta bakoitzaren esanahiaren inguruan pasadizo bana.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-03-28*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com